

«Desagertuak Bilatzeko Unitate Berezia osatu izana senideen lorpena izan da»

Habanan Kolonbiako Gobernuak eta FARC gerrillak adostu zuten Egia, Justizia, Erreparazioa eta Ez Errepikapenerako Sistema Integralak bost zutabe ditu: Egiaren Batzordea; Desagertuak Bilatzeko Unitate Berezia; Bakerako Jurisdikzio Berezia; biktimen erreparaziorako neurriak eta azken hamarkadotan herrialdean gertatutakoa ez errepikatzeko bermeak.

2016ko irailaren 26an hautatu zituzten Bakerako Jurisdikzio Berezia osatuko duten epaileak Kolonbian eta Luz Marina Monzon abokatua Desagertuak Bilatzeko Unitate Bereziko zuzendari izendatu zuten. Aldiz, oraindik ez du kargua hartu eta oraindik ez daki zein izango den unitatea sortu ahal izateko aurrekontua ezta zeintzuk izango diren izango dituen finantzazio iturriak. Izendapena jakinarazi ziotenetik, erakundearen azpiegitura diseinatzeko finantziazio proiektua zehazteko eskatu dio Gobernuari, Unitate Berezia Justizia Ministerioaren mende baitago. Hori guztia arautuko duen dekretuaren zain dago baina Monzon.

Villavicencion jaioa, abokatua da ofizioz Monzon. Eskarmentu handia du giza eskubideekin eta desagertutako pertsonekin lotutako gaietan. 1997tik 2009ra, Kolonbiako Jurista Batzordeko kide izan zen. Kolonbian oso ospetsuak izan diren auziak izan ditu esku artean, horien artean 1987an 19

LUZ MARINA MONZON

ABOKATU KOLONBIARRA

Kolonbiako gatazka armatuarekin lotuta desagerrarazitako lagunak bilatzeko sortu berri duten Unitate Bereziko zuzendaria da Luz Marina Monzon abokatu kolonbiarra.

Ainara Lertxundi



merkatariren desagerpena Magdalenan; Jaime Garzon komikoaren heriotza 1999an edota Union Patriótica alderdiaren kontrako genozidioa. Memoria Historikoko Zentroaren ikerlari ere izan da.

Ehun talde baina gehiagok proposatu zuten Monzon Unitate Bereziko zuzendari gisa, giza eskubideen alde, gatazka- ren ondorioz biolentzia sexuala jasan duten emakumeen alde eta desagertuen egoera ikustarazteko egindako lanagatik. Behartutako desagerpenak agenda politikoaren parte ez direla salatzen du.

Kolonbiatik GAUR8rekin telefonoz eginiko elkarrizketan, Monzonek Unitate Berezia sortzea lorpen handia dela nabarmendu du, eta Habanako Akordioak testuinguru politikotik babestea eskatzen du. Hauteskunde hurbiltasunak giro politikoa are gehiago nahastu du, eta aurrekontuak izoztuta daude. Unitatea Berezia- ren azpiegitura finkatzeaz gain, bilaketak hasteko plangintza metodikoa osatzea da lehentasunetariko bat.

Habanako Akordioetan idatzita dagoenez, Unitate Berezia- k izaera humanitarioa izango du eta judizioz kanpokoak. Ondorengoak dira zehazki bere ardurak: gerraren ondorioz edo gerraren testuinguruan desagerrarazitako herritarren errealitatearen berri zehatza jasotzea, horretarako beharrezko informazio guztia bilduz; hamarkadotan aurkitutako gorpuen identifikazioa bizkortzea Medikuntza Legaleko eta Zientzia Forentseko Institutu Nazionalarekin batera; gorpuen bilaketa, identifikazioa eta entrega koordinatzea; eta iturri desberdinetatik lortutako informazioa gurutzatu eta baieztatzea.

Gatazkan esku hartzea izan dutenekin eta desagertuen edo hobi komun gaineko informazioa izan dezaketen pertsonekin egindako elkarrizketak sekretupekoak izango dira. Lekukotasunak, estrajudizialak. Informazioa ematen dutenek tratamendu berezia jasoko dute justiziaren partetik.

Unitateak lana modu integrean egin ahal izateko, funtsezkoa da Egiaren Batzordea martxan jartzea eta bata- batearekin informazioa trukatzeara. Era berean, Estatuaren datu-base ofizialetara sarbidea izango du eta biktimen nahiz giza eskubideen aldeko erakundeekin hitzarmenak sinatu ahal izango ditu informazioa partekatzeko. Aldi berean, bai Gobernuak bai FARCek ere beraien jardunbidearen ondorioz desagertutako pertsonen buruzko informazioa emateko konpromisoa hartu zuten.

Ahal den neurrian, familia bakoitzari bere senitartekoa- ren desagerpenari buruz lortu duen informazioarekin txostena emango diote. Ahal bada, gorpua ere entregatuko diote, betiere familia bakoitzaren ohiturak eta jatorri etniko- kulturala errespetatuz. Kopia bat Egiaren Batzordeari emango zaio.

Bilaketa prozesuan senideen parte hartzea bermatuko du Unitate Berezia- k. Gorpuak norenak diren jakiterik ez denean, gorde egingo dira etorkizunean identifikatu ahal izateko helburuarekin. Sei hilabetero, egindako lanaren berri emango dute publikoki, betiere biktimen pribatutasuna errespetatuz. Legez kanpoko hilerri, hilobi eta hobi komun erregistroa osatzeko agindua badute.

Unitate Bereziko langileak ez daude behartuta prozesu

judizialetan deklaratzera, ezta salaketak jartzera ere. Bakera-ko Jurisdikzio Bereziak edo Egiaren Batzordeak deitzeko-tan, egindako txosten foren-tseak berretsi eta horien gai-neko azalpenak besterik ez dituzte eman beharko.

Zer suposatzen du zuretzat ja-sotako ardura berriak?

Erronka benetan handia da ni-retzat gatazkaren testuingu-ruan desagertutako pertsonak bilatzeko Habanako Akordioek aurreikusitako unitatearen zu-zendaria izatea. Ardura handia da. Kolonbia zorretan dago de-sagertutakoen senideekin eta nire onena emango dut lan honetan.

Nondik hasi lanean?

Epe motzera begira, lehenta-suna hobi komunetan aurkitu diren gorpuzkiak identifika-tzea da. Horietako asko gorpu-tegietan pilatuta daude, nore-nak diren ere jakin gabe. Hori urrats garrantzitsua izango li-tzateke senideei erantzunak emateko bidean. Era berean, egun desagertuen inguruan dugun informazioaren arabe-rako lan plangintza sistemati-koa osatu behar dugu. Hori da, hain zuzen, dugun erronkarik handiena. Baina, lanean hasi aurretik, lehenengo unitatea bera osatu eta finkatu behar dugu. Erakundea zerotik has-ten da, orain arte ez da horre-lakorik egon Kolonbian. Nire lantaldearekin batera, oina-riak adostu behar ditugu, hau da, etxearen egitura bere oso-tasunean eraiki.

Noiz egongo da martxan?

Zoritxarrez, ezin diot zure gal-derari zehaztasunez erantzun. Justizia Ministerioaren behin-behineko dekretuaren arabe-ra, lantaldea 260 lagunez osa-

«Epe motzera, lehentasuna hobi komunetan aurkitu diren gorpuzkiak identifikatzea da. Horietako asko gorputegietan pilatuta daude norenak diren ere jakin gabe»



tuta egongo litzateke gutxi gorabehera. Batetik, lantalde administratiboa, eta, bestetik, gorputz teknika. Bogotan eta eskualdeetan lan egitea da as-moa. Eskualdeak jasotzen du-gun informazioaren arabera zehaztuko ditugu. Baina ez dakit hori guztia noiz jarriko den martxan.

Ziurgabetasun handiak dau-de. Unitatea arautzeko dekretua Auzitegi Konstituzionala-ren esku dago. Eta epaileek oraindik ere ez dute beraien azken hitza esan. Konstituzio-nalak Habanako Akordioek Unitate Bereziari emandako manamendua eta bilaketa hu-manitarioaren izaera bera ere alda dezake. Oso larria izango litzateke horrelakorik gerta-tuz gero. Unitateak duen be-

rezko izaera hori galtzeko arriskua dago eta horrek asko kezkatzen gaitu. Izan ere, be-rezkotasun horrek egiten du unitatea aitzindari gatazka ar-matuaren testuinguruan de-sagerrarazitakoen bilaketan.

Nabarmendu nahiko nuke ere hauteskunde kanpainaren bezperatan gaudela. Martxo-an Legebiltzarra hautatzeko hauteskundeak egingo dira, eta, maiatzean, berriz, presi-dentea hautatzeko lehen itzulia. Hilabete horietan aurre-kontuak izoztuta gelditzen dira, eta, beraz, jendea kontra-tatzeko baliabideak murrizta-goak dira. Ez dakigu ze bitar-teko aurreikusi dituzten Bakerako Jurisdikzio Berezia-ren barruan dagoen Desager-tuak Bilatzeko Unitate Berezia

martxan jartzeko. Nik behin-tzat ez dut informazio hori.

Habanako Akordioak bloke konstituzionalaren barruan sartuta daude. Sinaduraren ostean, Suitzako Kontseilu Federalean utzi zuten FARCek eta Gobernuak akordioaren testua. Juan Manuel Santosen Gobernuak Nazio Batuetan ere aurkeztu zuen Estatuaren Aldebakarreko Adierazpen gisa. Halere, Akordioaren in-plementazioa uste baino mantsoago doa eta legebil-tzarkideek emendakinak egin dizkiote, hasierako sa-koneko esanahia aldatuz. Hortaz, Akordioa hautsi egin daitekeela esan al daiteke?

Baietz esango nuke, batez ere hauteskunde testuinguruan



Argazkiak: Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

«Biktimei
erantzunak zor eta
eman behar dizkion
Estatu baten parte
sentitu behar dugu
guztiok honek
funtzionatu ahal
izateko»



ruko salaketak bideratzeko ar-
dura duena. Fiskaltzak, ordea,
ez dio kasu guztien berri ema-
ten Batzorde Nazionalari, hor-
taz, erregistroa osatu gabe gel-
ditzen da eta ez dago jakiterik
zein den gatazkaren ondorioz
desagertu diren pertsonen ko-
puru erreala. Informazioa par-
tekatzeko borondate falta ho-
rri aurre egin behar diogu;
hori da beste erronka handie-
tako bat. Iturri batzuk kontuan
hartzen baditugu, desagertuak
60.000 dira; nire uste apale-
an, ordea, askoz gehiago dira.

**Bilaketarekin batera, Unitate
Bereziaren konpromisoa fa-
milia bakoitzari bere senide-
aren kasuari buruzko txosten
bat ematea da, nahiz eta gor-
pua ez agertu. Konpromiso
hori gautzerik ba al da?**

Une honetan ezin diot galdera
horri erantzun. Hori lortzen
saiatuko gara, baina ez dakit
lortzeko gai izango garen, den-
bora ere gure kontra dugu.eta.
Adibidez, 80ko hamarkadan
desagertutako askoren kasuan
ez zuten salaketarik ere jarri,
beldurragatik; askok isilpean
gorde zuten senideen desager-
pena eta sekula inork ez ditu
bilatu. Horrek zailtzen du bai
informazio fidagarria izatea
bai horren arabera plangin-
tza bat egitea. Kasu askori bu-
ruz ez dugu inolako daturik
sokatik tira egin ahal izateko.
Horrekin ez dut esan nahi, ha-
lere, bilaketa posiblea ez de-
nik. Desagertu guztiak bilatu
behar ditugu eta hori da, hain
zuzen ere, Desagertuak Bila-
tzeko Unitate Bereziari eman
zaion manamendua.

Orain arteko bilaketak plan-
gintzarik egin gabe egin
dira,eta hori ezin dugu errepi-
katu. Bilaketak modu planifi-
katuan, ordenatuan eta koor-
dinatuan egin behar ditugu;

buru-belarri sartuta gaudela-
ko. Fiskal nagusiak Akordioari
kritika asko egin dizkio eta oz-
topoak ere jarri dizkio, ez bai-
titu eskumenik galdu nahi.
Justizia arruntaren arabera,
desagertuen bilaketa berari
dagokio, baina Bakerako Juris-
dikzio Bereziak bestelako bi-
tartekoak aurreikusten ditu,
Unitate Berezia eta Egiaren Ba-
tzordea kasu. Espero dut Auzi-
tegi Konstituzionalak akordio-
en edukia errespetatuko duela.

**Eta Konstituzionalak akor-
dioen letra aldatuko balu,**

**zer-nolako testuinguru poli-
tikoan egongo ginateke?**

Itxaropenari eta konfiantzari
dagokionez, oso larria izango
litzateke. Inondik inora erraza
izan ez arren, itxaropena piztu
duen bake prozesuari sona
kentzea izango litzateke. Auzi-
tegi Konstituzionalak Kolon-
biak beste hainbat esparrutan
aurrerapauso demokratikoak
ematea ahalbidetu du. Baina,
arestian aipa bezala, asko kez-
katzen gaitu testuinguru poli-
tikoak epaileen erabakiengan
nolabaiteko eragina izatea, eta,
ondorioz, bakegintzan fun-

tsezkoak diren mekanismoak
desitxuratzea. Horrelakorik
gertatzekotan, gehien sufritu-
ko luketenak biktimak eta ga-
tazkak gehien kolpatu dituen
eskualdeak izango lirateke. De-
sagertuak Bilatzeko Unitate
Berezia biktimen lorpen histo-
rikoa izan da eta beraiekin zo-
rretan gaude herri gisa.

**Informazio iturri batetik bes-
tera izugarri aldatzen da de-
sagertuen kopurua. Ba al da-
go jakiterik zehatz-mehatz
zenbat desagertu dauden Ko-
lonbian?**

Hori da beste desafioetariko
bat. Orain arte ez dugu lortu
fitxategi bateratu bat eduki-
tzerik. Erakunde bakoitzak be-
re fitxategi propioa du eta ho-
rren arabera egiten du lan.
Bakoitzak bere irizpideak ja-
rraitzen ditu eta, hori dela eta,
zifra oso desberdinak ditugu.
2000. urtean, Bilaketa Batzor-
de Nazionala sortu zen desa-
gertutakoen erregistroa egite-
ko. Erregistro horrek gabezia
asko ditu, gainontzeko era-
kundeek ez dutelako berarekin
informazioa partekatzen. Fis-
kaltza da desagerpenen ingu-



GIZARTEAK DESAGERTUEI BIZKARRA EMATEN DIENEAN

Luz Marina Monzonek desafio handia du esku artean: desagertutako pertsonen inguruan Kolonbian hedatutako axolagabetasuna gainditzea. «Ez dut jendearen ezaxola deitoratzen, luzaroan bizirauteko estrategia baten parte izan baita. Baina bada garaia hortik ateratzeko», helarazi du.

Kolonbiako Memoria Historikoaren Zentro Nazionalak 1970 eta 2015 artean herrialdean 60.000 desagertutik gora egon zirela eman du aditzera “Aurkitu arte. Behartutako desagertuen drama Kolonbian” izenburua duen ikerketa txostenean. «Pertsona bat desagerrarazi egiten dugunean, bere nortasuna ezabatu nahi dugu errotik. Argazkiak errebelatzeko erabiltzen denaren alderantzizko prozesua da; desagertutako pertsona belatzea da helburua, ikusezin bihurtzea», nabarmendu zuen Gonzalo Sanchezek, Memoria Historikoaren Zentro Nazionaleko zuzendariak, txostenaren aurkezpenean.

«Desagertutako pertsona bat ez dago ez bizirik ezta hilda ere. Izaera hori hartzen du familiaren diskurtsoan. Lurperaturik gabeko hildako bat da, eta, gizaki bizi bat bailitzan, beti irain eta torturen biktima da. Bi egoerok benetan gogorak eta gordinak dira senideentzat. Batzuetan lehen egoera dute buruan, eta, besteetan, bigarrena. Bi hipotesi horien artean bizi dira etengabe. Ezjakintasun horrek pertsonaren galera fisikoarengatik pairatzen duten mina jasanezinago egiten du». Sandra Milena Zorio Bogotako Unibertsitate Nazionaleko ikasleak “Ez bizirik ez hilik ez dagoen norbaitegatik sentitzen den mina. Irakurketa freudianoa bortxazko desagertuen doluari” graduko lanean jasotako hausnarketa da.

«Amaierarik gabeko dolua pairatzeaz gain, desagertutakoen senideek galdu duten hori berreskuratzeko borroka egiten duten aitak, amak, seme-alabak... dira. Beraien irmotasunari eta lanari esker, bortxazko desagertuena delitu gisa tipifikatzea lortu zen, 2000 arte ez baitzen delitu ere. Desagertuena bahiketarekin nahasten zen. Egun desagertuak bilatzeko eta gorpuzkiak identifikatzeko baliabidek badaude, senideen borrokari esker da», esan zuen aurkezpenean Sanchezek.

«Senideek aldarrikatzen duten egia eta justizia gizarte osoaren aldarria izan beharko litzateke. Argentina, Txile eta Uruguaiako diktadura militarretan egondako desagertu guztiak batuta ere, Kolonbian daudenak baino gutxiago dira. Eta pentsa, hori Kolonbian formalki demokrazia izanda! Hala ere, oraindik orain, gizartearen gehiengoak bizkarra ematen dio biolentzia mota honi», salatu zuen Sanchezek. Behin baino gehiagotan, «zigorgabetasunari, estigmatizazioari eta jendearen axolagabetasunari esker», desagertuaren senideak eurak ere desagerrarazi dituztela esan zuen Sanchezek. «Behar-beharrezkoa dugu gizarte bezala desagertuen mahairatzea, desagertuei izen eta abizenak jartzea, anonimatutik ateratzea, desagerrarazi zituzten gizon-emakume eta haurren istorioa kontatu behar dugu ez, baitira zifra soilak», amaitu zuen.

hori da neure buruari jarri diodan erronka. Biktimei azalpenak ere eman behar dizkiegu. Informazio faltaz gain, erakundeen arteko koordinazio eza gainditu behar dugu; erakunde bakoitzak bere lan eremua mantendu nahi du eta ez du eskumenik galdu nahi. Biktimei erantzunak eman behar dizkion Estatu baten parte sentitu behar dugu guztiok honek funtzionatzeko. Erakundeen arteko lan protokolo bat egitea gustatuko litzaidake, eta honakoa guztion zeregina dela aditzera eman. Desagertuak bilatzea ez dagokio soilik honi edo besteari; guztiok dugu ardura bat eta elkar-lanean jardun behar dugu. Estatu gisa jardun behar dugu.

Unitateak lan egin ahal izateko behar-beharrezkoa du Egiaren Batzordea martxan jartzea. Dagoeneko aurkeztu dituzte bertako kideak eta zuzendaria.

Bai, horrela da. Gatazkan esku hartu duten aktore guztiek Egiaren Batzordean azaldu beharko lukete egindakoa edo behintzat dakitena. Emandako informazio hori ez da helburu juridikoekin erabiliko. Guk datu horien beharra dugu desagertuak bilatzen hasteko edo behintzat beraiekin zer gertatu zen zehazten hasteko. Infor-

«Desagertu guztiak bilatu behar ditugu eta hori da, hain zuzen, Desagertuak Bilatzeko Unitate Bereziari emandako agindua. Orain arte plangintzarik gabe egin dira bilaketak eta hori ezin dugu erreplikatu»

mazioz gabe ezin dugu deus ere egin.

Hitz egindakoaren ostean, zein diagnosi egiten duzu?

Nire ustez, aukeraz eta itxaropenez beteriko momentu baten aurrean gaude. Testuinguru politikoak ez oztokatzea eta Habanako Akordioak gauzatu ahal izatea espero dut. Ez zen erraza izan Akordioa sinatzea. Kolonia aldatzeko esperantza dugu, baina baita gerrak utzi dizkigun zauriak sendatzeko ere. Beldurtzen nau norberaren eta sektore jakin batzuen interes zikoitzek guztion esperantza zapuztea. Hau ez da bake prozesu bat egiten den lehen aldia, ez da gero betetzen ez diren akordioak sinatzen diren lehen aldia. Hori berriz gertatuko ez den esperantza dut. Habanako Akordioak Kolonbiarentzat dira; espero dut kolonbiarrok, horien onuradun izanik, testuinguru politikotik babesteko gai izatea.